

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANA Tolosa (2015-2020)



Laguntza teknikoa:



Babeslea:



	<i>Or.</i>
I. zatia BERDINTASUNERAKO III. PLANAREN AURKEZPENA ETA TESTUINGURUA	3
1. Aurkezpena	4
2. Arau-testuingurua	7
3. Berdintasun-politiken ibilbidea Tolosako Udalean	8
4. III. Berdintasun Planaren prestatze-prozesua eta egitura	9
II. zatia ESKU HARTZEKO ARDATZAK	12
1. Genero-zeharkakotasuna kulturaren eta udal-gobernaren	13
2. Emakumeen partaidetza soziopolitikorako jabetzea	22
3. Zainketen ekonomia eta bizitzaren iraunkortasuna	31
4. Indarkeria matxistarik gabeko ingurunea	36
III. zatia III. PLANAREN KUDEAKETA, JARRAIPEN ETA EBALUAZIO EREDUA	42
IV. zatia ERANSKINAK:	47
1. III. Planaren jarraipen fitxa	48
2. 2015-2016 urteetako aurrekontua	49

I. zatia:

Emakume eta gizonen III. Planaren aurkezpena eta testuingurua



Hamarkada batetik gorako ibilbidearen ondoren, Tolosako Udalaren berdintasun-politikak finkatzeko eta sakontzeko fase oso garrantzitsu batean daude. Jarraian aurkeztuko den Emakumen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana balorazio bikoitz batetik abiatzen da:

- ✓ Batetik, Tolosako emakume eta gizonen **eguneroko errealitateko esparru guztietan** oraindik dauden desberdintasunen analisia;
- ✓ eta bestetik, **genero-zeharkakotasunak udal-politiketan eta Udalaren barne-antolakuntzan bertan duen ezarpen-mailaren** analisia.

III. Berdintasun Plan honek, beraz, dokumentu edo partaidetzazko espazio hauetan jasotako informazioaren ondorioz sortutako lan-lehenespenak jasotzen ditu:

- ✓ Tolosako Udalaren emakume eta gizonen **berdintasunerako udal-ordenantza, 2008tik indarrean dena;**
- ✓ Emakume eta gizonen **berdintasunerako diagnostikoa, 2014ko urrian amaitua.**
- ✓ Emakume eta gizonen **berdintasunerako II. udal-planaren ebaluazioa, 2012an egina, II. Berdintasun Planaren zein berdintasunerako udal-ordenantzaren ezarpen-maila eta eragina dokumentatzen dituen.**
- ✓ **Elkarrizketak, bilerak eta eztabaida-taldeak, 2014an zehar dokumentu hau prestatzeko prozesuaren barruan egindakoak, bai hiritarren ordezkariekin, bai Udaleko eta eskualdeko ordezkari politiko eta teknikoekin.**

PRINTZIOPIO ZUZENTZAILEAK

Plangintza-tresna hau prestatzean, zenbait printzipiok gidatu gaituzte:



Lehentasuna lan-prozesuei

III. Berdintasun Plan honen ezaugarri nagusi bat prozesu nozioan jarritako enfasia da. Funtsezkoa da plan honekin **zer** lortzen den ez ezik, **nola** garatzen den.

Neurri-bilduma bat baino gehiago, emaitzetara bideratutako plangintza bat baino gehiago, dokumentu honek **esku hartzeko 4 ardatz nagusiren inguruko udal-ekintza berriz zentratu** nahi du, baliabideak kontzentratzeko eta **ibilbide luzeko proiektu estrategikoetan oinarrituta** antolatzen diren aldaketak bilatzeko.

Halaber, zenbait proiekturi eustea eta horiek garatzea planteatu da, zeharkako izaera dutenak, ardatz desberdinetan sartutako planaren neurriei modu koherente eta koordinatuan heltzeko aukera ematen baitute, hemen aurkeztutako bi adibideetan agertzen den bezala. Baina III. Planean garatutako beste proiektu estrategiko batzuek ere eskaintzen dute aukera esku hartzeko zenbait ardatzetatik ekintza integratu eta koordinatuak egiteko.



PRINTZIPIO ZUZENTZAILEAK



Plan solidario bat krisi-garaietan

Krisiaren irakurketa **feminista** batetik, hura **egiturazko fenomeno** gisa ulertuta eta ez koiuntura-desmoldaera baten adierazpen huts gisa, arreta berezia jarri nahi izan dugu eskasia-egoera handieneko pertsona eta kolektiboetan, haiei ahotsa emateko eta **antolakuntzako eta jabetzeko formulen alde egiteko**:


- Patriarkatua kontrolatzeko mekanismoek sostengatutako **sistema neoliberal bat zalantzan jarrita**. “Krisiaren” eragin saihestezinei buruzko diskurtso fatalistak eta “austeritate-politika” batzuen ustezko premia onartzetik urrun, gure ustez, krisiari genero-ikuspegitik begiratzea da **geure buruari galdetzea zer neurritan jartzen diren arriskuan ezinbesteko prozesuak**, eta eratu diren erantzun politikoez zer neurritan **larriagotu dezaketen polarizazio soziala eta areagotu gizon eta emakumeen arteko desberdintasuna**, antolakuntza soziala diskriminatzaile bat gainditu nahian emakume eta gizon askok egin duten urteetako borroka atzera botaz.

- **Egungo arazoaren irakurketa konplexuago eta osoago batekin bat eginik**. Ikuspegi kritiko batetik, baina garai nahasi hauek **prozesu jakin batzuei berriz zentzua emateko aukera** ematen digutela ere onartuta, eta kolektibo ahulagoei **laguntzeko ordezkotako formulak eta komunitarioak bilatzeko**.


lido horretan, apustu egin dugu analisi feministak eta populazioa sensibilizatzeko prozesuak indartzearen alde, **berdintasun-politikak egiteko moduak ez ezik, pentsatzekoak ere aldatzeko**:

- **Balio-aldaketa baten sustapenarekin** zerikusia duten neurriei protagonismoa eman nahian, atal espezifiko bat sartu dugu III. Planaren esku hartzeko ardatz bakoitzaren hasieran.
- Udalaren eta eskualdearen arteko sinergiak sustatu nahian, **emakume migratuen premien arreta** integratu dugu planean, zeharka.

Tokikotik globalera:



Mugarri batzuk Tolosako berdintasun-politiken bidean



Emakume eta gizonen berdintasunerako III. Plana prestatzeko bigarren mailako **bi informazio-iturri nagusiak** 2012ko Berdintasunerako II. Plana eta 2014an egindako genero-diagnostikoa izan dira. Dokumentu horiek hauxe ekarri dute:

- ✓ Herriaren **egoeraren mapa bat berdintasunari dagokionez**, udalaren eskumen osoko edo partzialeko esparru guztietan, zeinei buruz informazio berria eta sexuaren arabera berezia lortu ahal izan den;
- ✓ **Udalaren indargune eta ahulgune nagusien mapa** bat berdintasunean lan egiteko, eta berdintasunezko barne-baldintzak Udalean bertan.
- ✓ **Udal-sailen ezaugarrien mapa bat berdintasun-gaietan**, detektatutako lehentasunetan lan egitearen egingarritasuna baloratzen laguntzeko.

Plana prestatzeko erabili den **metodologia mistoa** izan da, konbinatuta bigarren mailako informazioaren azterketa, bilera teknikoak egitea, elkarrizketak egitea eta esparru zehatzetara bideratutako eta gizarte tolosarreko ordezkari eta eragileek osatutako **eztabaida-taldeen** dinamizazioa.

Jarraian, erabilitako metodologiak eta kontsultatutako iturri nagusiak aipatuko ditugu:

- ❑ **Bigarren mailako udal-iturrien analisia:** Batik bat lehenago aipatutako txostenak (II. Planaren ebaluazioa eta 2014ko genero-diagnostikoa), eta proiektu zehatz batzuei buruzko justifikazio-txostenak edo memoria narratiboak.
- ❑ **Berdintasun-politiketarako plangintza-dokumentuen azterketa:** Kasu honetan, erreferentzia-esparrua izan dira Gipuzkoako Lurraldeko emakume eta gizonen Berdintasunerako II. Foru Plana (2012-2020), eta EAeko VI. Berdintasun Plana. Horietako bakoitzetik ardatzak eta esku hartzeko planteamendua aztertu dira eta Tolosako errealitate sozialera eta udal-antolakuntzara egokituztat jo diren ideiak hautatu dira, baita diagnostiko-fasean detektatutako lehentasunezko helburuak eta ardatzak ere.
- ❑ **Elkarrizketa eta kontaktu indibidualizatuak:**
 - Barneko udal-langileekin: Gizarte Zerbitzuak, Kirolak, Gazteria, Euskara, Festak, Kultura, Hirigintza, Langileak, Liburutegia, Musika Eskola, Azoka bereziak, Ingurumena.
 - Kanpoko langileekin: Tolosako ikastetxeak, Osakidetza, osasun-zentro pribatu bat, Tolosaldea Garantzen/Eskualdeko Agentziaren migrazioa eta aniztasuna Arloarekin.
 - Sindikatu, alderdi politiko eta hirugarren sektoreko entitateen ordezkariekin: EHNE sindikatua, LAB, ELA, Cáritas, baliabide sozial eta juridikoen Arrats elkarte (pertsonek presoak, preso ohiak, sexu-langileak), udaletxean ordezkaturako alderdi politikoak.

- ❑ **Eztabaida-talde espezifikoak:** Partaidetzazko zenbait lan-saio egin dira, eta informazioa eskaini dute genero-diagnostikoa prestatzeko zein Berdintasunerako III. Plana prestatzeko ideiak eta proposamenak biltzeko.

 - Diagnostikoaren biltze-prozesuaren barruan kokatuta, “**Berdintasunezko kultura baterantz**” izeneko **tailer** bat egin zen jabetze-eskolaren barruan, herritar guztientzat irekia, bai emakume, bai gizonentzat. Tailer horretara 20 joan ziren (15 emakume eta 5 gizon), horien artean hauek: Jabetze Eskolako ikasleak, udalerriko askotariko elkarteetako ordezkariak (Bilgune Feminista, Gainditzen, Mulambo, Nura, Kristoren gorputza, Targazki, Isidro Larrañaga Orkestra), pertsonak norberaren aldetik, Udaleko (Kulturako teknikaria) eta Tolosadea Garatzen agentziako (Migrazio eta Aniztasun teknikaria) langile teknikoak, eta udal-langile politikoak, Kultura-zinegotzia eta Berdintasun-zinegotzia.
 - Beste tailer bat egin zen esparru berean, “**Nola eragiten du krisiak emakumezkoen eta gizoneskoen bizitzetan?**” izeneko. 23 pertsona joan ziren (17 emakume eta 6 gizon), horien artean hauek: Jabetze Eskolako ikasleak, pertsonak norberaren aldetik, udalerriko elkarteetako ordezkariak (Jatorkin, Ereite, Ikarkel, Zero Zabor, Topa, Eko-Etxe, Gure Txokoa, SOS Racismo, Stop Kaleratzeak, Bilgune Feminista), Fiare Banku Etikoaren ordezkari bat, LAB eta ELA sindikatueta ordezkariak, Tolosaldea Garatzen agentziako langile teknikoak (Migrazio eta Aniztasun teknikaria eta emplegu teknikaria), eta udal-langile politikoak (Berdintasun-zinegotzia).
 - Azkenik, **Jabetze Eskolako ikasleekin ere bi tailer egin ziren** 2013an eta 2014an, sistematizazio-proiektuaren barruan, eta planerako proposamenak egiteko elementuak eskaini zituzten Guztira 10 emakumek hartu zuten parte, bai bertakoek, bai atzeritarrek.
 - Aurreikusita dago **diagnostikoari eta III. Berdintasun Planari buruz beste bi itzultze- eta kontraste-tailer** egitea 2014ko abenduan.. Dokumentu hau prestatu ondorengo lan-fase bati dagozkie, jasotako ekarpenak 2015 eta 2016 urteei dagokienez bi urteko lehen programa eragilea definitzeko erabiliko baitira. Kolektibo berak deituko dira berriz, eta Jabetze Eskolako ikasleentzat zabalduko da.

I. zatia BERDINTASUNERAKO III. PLANAREN AURKEZPENA ETA TESTUINGURUA

1. Aurkezpena
2. Arau-testuingurua
3. Berdintasun-politiken ibilbidea Tolosako Udalean
4. III. Berdintasun Planaren prestatze-prozesua eta egitura

II. zatia ESKU HARTZEKO ARDATZAK

1. Genero-zeharkakotasuna kulturen eta udal-gobernuan
2. Emakumeak partaidetza soziopolitikorako jabetzea
3. Zaintzen ekonomia eta bizitzaren iraunkortasuna
4. Indarkeria matxistarik gabeko ingurunea

III. zatia III. PLANAREN KUDEAKETA, JARRAIPEN ETA EBALUAZIO EREDUA

Dokumentuak **3 atal nagusi** ditu:

- I. Sarrera bat, prestatze-prozesuaren testuingurua eta erreferentzia-esparrua laburbiltzen duena;
- II. Esku hartzeko 4 ardatzak deskribatzen dituen funtsezko zati bat;
- III. Kudeaketa, jarraipena eta ebaluazioa egiteko azken zati bat, plan eragileetan zehaztu beharko diren estrategiak eta lan-prozedurak marrazten dituena.

Esku hartzeko ardatzetarako, udal arloen araberako aurreko egitura, tradizionalagoa, ez jarraitzea erabaki da, zenbait arrazoiengatik:

- ✓ Lan-prozesuetako enfasiak eta genero-zeharkakotasun filosofiak egiteko moduak aldatzea eta **esku-hartzearen konpartimentalizaziorako joera jakin bat gainditzea** eskatzen dutelako lan-eredu gero eta holistikoagoak sustatzeko.
- ✓ Berdintasun-politikak lehenetsunezko ardatzen inguruan zentratu nahi izan direlako berriz, baliabide eta ekintzen **sakabanatze handiegi bat ekiditeko**.
- ✓ **Plan errealista bat diseinatu delako**, eta horren aurrerapena **modu zehatzean neurtuko da** tartean diren arloekin, jarraipen- eta ebaluazio-lan esanguratsu bat sortuta.



DENBORAZKOTASUNA: 6 urteko esparru-plan bat, 2015-2020, diseinatzea erabaki da, eta horren implementazioa 2 urteko hiru fasetan banatuko da. Fase bakoitzerako, bi urteko programa eragile bat prestatuko da, eta horrek zehatzago definitzeko aukera emango du garapen posiblea zein aldi horretarako hautatutako neurrien kostua.


II. zatia: ESKU HARTZEKO ARDATZAK



1. ARDATZA. GENERO ZEHARKAKOTASUNA

GENERO ZEHARKAKOTASUNA KULTURAN ETA UDAL GOBERNUAN ARDATZAK lagungarri izan behar du udal-jarduera hobetzeko, Tolosako Udalak berdintasunarekin duen konpromisoa sendotuz eta haren antolakuntza-kultura berraztertuz, esku-hartze publiko efikazagoa, parekideagoa eta berdintasunezkoa errazteko.








Esku hartzeko ardatz honek jarraian deskribatuko ditugun 3 helburu estrategiko ditu:







1.1. HELBURU ESTRATEGIKOA. Antolakuntza-kultura bat sustatzea, balio-aldaketa bat sortu eta Udalak berdintasun-politiketarako duen konpromiso politikoa eta teknikoa finkatuko duena

HELBURU ESPEZIFIKOAK	NEURRIAK	KRONOGRAMA					
		2015	16	17	18	19	20
1.1.1. Genero zeharkakotasunera bideratutako udaleko lan-prozesuetan antolakuntza-kultura elementuak sartzeko analizatzeko	1.1.1.1. Urteko prestakuntza-planean genero-ekitatearen aldeko antolakuntza-aldaketaren metodologian trebatzeko saioak sartzea, genero zeharkakotasunaren proiektuaren fase aurreratuenetan sartuta dauden zinegotzitzetarako (langile tekniko eta politikoentzat)						➔
	1.1.1.2. Udal-arlo baten edo zenbaiten funtzionamendua analizatzeko proiektu pilotu bat ezartzea genero-ekitatearen aldeko antolakuntza-aldaketaren metodologiaren bidez.						➔

1.2. HELBURU ESTRATEGIKOA. Tolosako politika publikoen diseinuan eta garapenean ikuspegi feminista txerta dadila posible egiten duten egitura, administrazio eta gestio kondizioak finkatzea, azken helburua delarik emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna lortzea udalerrian.

HELBURU ESPEZIFIKOAK	NEURRIAK	KRONOGRAMA					
		2015	16	17	18	19	20
1.2.1. Berdintasun-egiturei eustea eta horiek indartzea, bai maila orokorrean, bai genero-zeharkakotasun proiektu estrategikoaren esparruan	1.2.1.1. Berdintasun Departamenduaren egonkortasuna sendotzea, bertan bi lanpostu mantenduta.						
	1.2.1.2. Barne lan bat egitea (politiko-teknikoa) hobeak izan daitezen, batetik, koordinazioa eta, bestetik, udal-koordinazioko egituren baterako erabakimena berdintasunaren arloan (departamentu arteko koordinazioa eta elkarrizketa-taldea).						
	1.2.1.3. Lan-saioak antolatu eta dinamizatzea non-eta berdintasuneko politiko eta teknikariez, kolektibo feministez, udalerriko elkarte eta norbanakoez osatuta dagoen udaleko Parekotasun Batzordean, Batzorde horrek udal politiketan eragiteko ahalmena baduela bermatuz.						
	1.2.1.4. Laguntza eta aholkularitza ematea Udal Departamendu edo Zerbitzu bakoitzak izendatutako elkarrizketa-taldeko teknikariei, genero-zeharkakotasuneko proiektuaren barruan agindu zaizkien lanak egoki egin ditzaten.						
	1.2.1.5. Udal Departamentu eta Zerbitzu desberdinen zuzendaritza guztiek parte hartzen duten Sail arteko Batzordearen saioak dinamizatu eta antolatu.						
	1.2.1.6. Udalerrirako proiektu estrategiko eta eraldatzaileak tratatzeko helburuarekin sorturiko eta Udal-sailen ordezkartza batek osatutako LAIA Batzordearen barruan erabakitako lanen eduki eta prozeduretan berdintasun irizpideak barneratzea.						
	1.2.1.7. Udaleko berdintasun-politiken barneko eta kanpoko ikuspena indartzea Udalaren web-orri orokorretik erraz aurki daitekeen webgune edo blog bat elikatuta, eta udal-intranetean berdintasun-politikei eta III. Planaren ezarpenari buruzko informazioa gordetzeko eta trukatzeko espazio bat sortuta.						




1.2 .HELBURU ESTRATEGIKOA (jarraip.) Tolosako politika publikoen diseinuan eta garapenean ikuspegi feminista txerta dadila posible egiten duten egitura, administrazio eta gestio kondizioak finkatzea, azken helburua delarik emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna lortzea udalerrian.





HELBURU ESPEZIFIKOAK	NEURRIAK	KRONOGRAMA					
		2015	16	17	18	19	20
1.2.2. Udaleko estatistika eta azterketeta sektorialetan genero ikuspegia integratzea.	1.2.2.1. Sexu-aldagaia modu sistematikoan sartzea udaleko arlo eta zerbitzu diferentek dituzten informazioa jaso eta tratatzeko sistemetan, behar adina lan-saio eginez IZFE erakundearekin zeinari Gipuzkoako Foru Aldundiak eman dion udaletan erabiltzen diren aplikazio informatikoez hornitzeko kargua.						
	1.2.2.2. Udaleko sailek edo horiek xede horrekin kontratatutako entitateek egindako datu-analisi eta azterketa sozialetan genero-ikuspegia sartzea.						
	1.2.2.3. Tolosaldea Garatzen/Eskualdeko Garapen Agentziako Migrazio eta Aniztasun Arloarekin jaiotza-herrialdeari eta/edo nazionalitateari buruzko datuak biltzeko eta analizatzeko irizpideak definitzea, bereizkeria bikoitzeko egoerak detektatzeko.						
	1.2.2.4. Urtero bildu behar diren udal-datuoen eta beste entitate batzuetatik eskuragarri dauden datu estatistikoen zerrenda zehatz bat ezartzea, sexuaren, adinaren eta nazionalitate/jatorrizko herrialdearen arabera berezita, udalerriko berdintasun-diagnostikoa aldizka eguneratzeko.						



1. ARDATZA. GENERO ZEHARKAKOTASUNA




1.2. HELBURU ESTRATEGIKOA (jarraip.) Tolosako politika publikoen diseinuan eta garapenean ikuspegi feminista txerta dadila posible egiten duten egitura, administrazio eta gestio kondizioak finkatzea, azken helburua delarik emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna lortzea udalerrian.




HELBURU ESPEZIFIKOAK	NEURRIAK	KRONOGRAMA					
		2015	16	17	18	19	20
1.2.3. Estereotipo sexistak erreproduzitzea ekiditea eta emakume eta gizonen partaidetza inklusiboa sustatzea Udalaren barneko eta kanpoko komunikazioan. .	1.2.3.1. Tolosako Udalak egindako edo sustatutako dokumentazio guztian hizkuntza inklusiboa nahitaez erabiltzea, udal mailan erabiltzen diren aplikatibo informatikoen berrikusketa eginez, IZFEren lankidetzaren bidez.						
	1.2.3.2. Udalak prestatutako edo sustatutako zabalkunde-dokumentu guztietan irudi orekatuak eta estereotipatu gabeak erabiltzea.						
	1.2.3.3. Berdintasunezko informazio eta zabalkunde bat sustatzen duten jarduera-irizpideak aplikatzea, Udalak sustatutako edo diruz lagundutako ekintza guztietan.						

HELBURU ESPEZIFIKOAK	NEURRIAK	KRONOGRAMA					
		2015	16	17	18	19	20
1.2.4. Prozedura administratiboetan berdintasun-printzipioaren integrazioa orokortzea	1.2.4.1. Tolosako Udaleko sailen diru-laguntzak, hitzarmen eta beka ematea arautzeko dokumentazio guztia genero-zeharkakotasun proiektuan definitutako berdintasun-irizpideetara egokitzea.						
	1.2.4.2. Tolosako Udaletik kontratazio publikoa egiteko prozesu guztietan berdintasun klausuak gehitzea.						
	1.2.4.3. Berdintasunaren sustapena bermatzea Tolosako Udalak sustatutako edo emandako aitorten eta sari guztiak arautzeko araudi guztian, eta ondasun historiko, kultural eta artistikoak erostekoan.						
	1.2.4.4. Udalak erakunde arteko lantaldeetan parte hartzea eta proiektu pilotu bat definitzea genero-inpaktuaren ebaluazioa inplementatzen hasteko udal-arau edo administrazio-egintza bat prestatzen hasi aurretik.						




1. ARDATZA. GENERO ZEHARKAKOTASUNA




1.2. HELBURU ESTRATEGIKOA (jarraip.) Tolosako politika publikoen diseinuan eta garapenean ikuspegi feminista txerta dadila posible egiten duten egitura, administrazio eta gestio kondizioak finkatzea, azken helburua delarik emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna lortzea udalerrian.

HELBURU ESPEZIFIKOAK	NEURRIAK	KRONOGRAMA					
		2015	16	17	18	19	20
1.2.5. Udaleko langile tekniko eta politikoen berdintasun-arloko trebakuntza indartzea	1.2.5.1. Generoan eta berdintasun-politiketan Udaleko berdintasun-arloko langile teknikoen etengabeko prestakuntza-plan bat ezartzea.						
	1.2.5.2. Urteko Prestakuntza Plan bat prestatzea eta inplementatzea udal-arlo guztietako langile tekniko zein politikoentzat, prozedura administratiboetan berdintasun printzipioa barneratzeko gaitasuna eskainiz.						
	1.2.5.3. Politika eraginkor bat mantentzea arlo honetan: udaleko lan-esparru garrantzitsu guztietan genero-zeharkakotasuna txertatzeko behar diren jakintza eta tresnen egintza eta transmisioa.						

HELBURU ESPEZIFIKOAK	NEURRIAK	KRONOGRAMA					
		2015	16	17	18	19	20
1.2.6. Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana inplementatzeko behar diren baliabide ekonomikoak bermatzea	1.2.6.1. Urtero Berdintasun Arloaren aurrekontuari eustea edo hori gehitzea						
	1.2.6.2. Helburu eta jarduera zehatzak definitu diren arlo eta programa funtzional guztietan emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko aurrekontu-baliabideak gehitzea, berdintasun politiken baterako finantzaketa maila andituz.						
	1.2.6.3. Esperientzia pilotu bat egitea udal Departamentu bateko aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzen.						

1.3. HELBURU ESTRATEGIKOA Erakunde arteko (udal, foru-aldundi eta erkidego arteko) koordinazioa eta partaidetzazko demokrazia erraztuko dituen lan-eredu batean aurrera egitea, berdintasun-politikak, praktika egokien transferentzia eta kudeaketa publikoaren hobekuntza garatzeko gako gisa.

HELBURU ESPEZIFIKOAK	NEURRIAK	KRONOGRAMA					
		2015	16	17	18	19	20
1.3.1. Berdintasun-arloan, udal arteko eta erakunde arteko koordinazio-mekanismoak finkatzea.	1.3.1.1. Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako Berdintasun Teknikarien Saretik sortutako lan- eta truke-espazioetan parte hartzea.						
	1.3.1.2. Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatuta udalerrri txikiagoak aholkatzeko Berdinbidean programan parte hartzen duten Tolosaldeko udalekin informazioa eta lankidetzak trukitzea.						
	1.3.1.3. Partaidetza aktiboa EAEn berdintasun-arloan bultzatutako erakunde arteko lan-espazioetan (Berdinsarea, Beldur Barik etab.).						

HELBURU ESPEZIFIKOAK	NEURRIAK	KRONOGRAMA					
		2015	16	17	18	19	20
1.3.2. Erakunde-demokratizazioaren maila handitzea, udalerrian genero-ikuspegia gehituko duten herritarren partaidetza-espazioak sortuta edo finkatuta.	1.3.2.1. Mugimendu feminista, emakume-elkarte eta elkarte mistoetako ordezkarietako parte-hartzea sustatzea eta egiazko elkarrizketako guneak sortzea, berdintasun-politikak diseinatu, garatu eta ebaluatzeko.						
	1.3.2.2. Parte hartzea jarduteko jarraibideen definizioan, LAIA barruan koordinatutako partaidetza-prozesuetan berdintasun-irizpideak txertatzeko.						
	1.3.2.3. Proiektu pilotu bat definitzea eta inplementatzea udaleko herritarren partaidetza-prozesu batean genero-ikuspegia gehitzeko.						

1.1. HELBURU ESTRATEGIKOA

Antolakuntza-kultura bat sustatzea, balio-aldaketa bat sortu eta Udalak berdintasun-politikekarako duen konpromiso politikoa eta teknikoak finkatuko duena.

1.2. HELBURU ESTRATEGIKOA

Egiturazko, administrazioko eta kudeaketako beharrezko baldintzak finkatzea, Tolosako politika publikoen diseinuan eta garapenean perspektiba feminista gehitzeko aukera emango dutenak, Tolosako udalerrian emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko azken xedearekin.



EMAITZAK - ADIERAZLEAK

- Prestakuntza-orduen kopurua, genero-ekitatearen aldeko erakunde-aldaketarako metodologian.
 - Genero-ekitatearen aldeko erakunde-aldaketarako metodologia arloan prestakuntza jaso duten teknikari guztien %.
 - Genero-ekitatearen aldeko erakunde-aldaketarako metodologian prestakuntza jaso duten politikari guztien %.
-
- Berdintasuneko Departamentuaren berezko aurrekontuaren % udal-aurrekontu osoaren aldean.
 - Berdintasuneko Departamentuari atxikitako teknikarien kopurua.
 - Emakumeen eta Gizonen % udaleko plantilla osoaren aldean eta kontratu-harremanaren motaren arabera (*Erreferentzia 2014ko diagnostikoa*).
 - Emakumeen eta Gizonen % udal-sailaren arabera (*Erreferentzia 2014ko diagnostikoa*).
 - Berdintasun-arloan eta genero-zeharkakotasuneko markoan prestakuntza berezia jaso duten langileen % (teknikari eta politikak).
 - LAIAk kudeatu eta beren diseinuan eta garapenean genero-ikuspegia txertatua daukaten proiektuen %.
 - Berdintasun-politiken eta III Planaren inplementazioaren gaineko informazioa gordetzeko eta trukatzeko gunea, Udalaren intraneten barruan garatu eta elikatua (*BAI / EZ*).
 - Berdintasuneko web-gune bat edo blog berezi bat Udalaren web-gunearen barruan txertatuta (*BAI / EZ*).
 - Datu-bilketan sexu-aldagaia aintzat hartzen duten aplikazio / datu-baseen % (*kalkulatuko da urteko hautaketa-multzo baten gainean*).
 - Sexuaren arabera banandutako datuak dauzkaten Departamenduetako azterlan / memoria edo proiektuen % (*kalkulatuko da urteko hautaketa-multzo baten gainean*).

1.2. HELBURU ESTRATEGIKOA

Egiturazko, administrazio eta kudeaketako beharrezko baldintzak finkatzea, Tolosako politika publikoen diseinuan eta garapenean perspektiba feminista gehitzeko aukera emango dutenak, Tolosako udalerrian emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko azken xedearekin.



EMAITZAK - ADIERAZLEAK

- Datuak aztertzeko garaian genero-ikuspegia kontuan hartu duten Departamenduetako azterlan / memoria edo proiektuen % (kalkulatuko da urteko hautaketa-multzo baten gainean).
- Emakumeen egoeraren gainean eta/edo berdintasun-arloan udal-departamentuek egindako azterlan berezien kopurua.
- Udalerriko genero-diagnostikoa aldizka eguneratzeko urtero bildu behar diren sexu, adina eta nazionalitatea / jatorriko herrialdearen arabera banandutako datu-zerrenda xehatu bat egitea Udal Departamentu bakoitzarentzat (BAI / EZ – Zerrenda egin duten Departamenduen kopurua).
- Hizkera ez-sexistaren erabilpen egoki bat eta irudi orekatu eta ez estereotipatuta dituzten testuen % (kalkulatuko da urteko hautaketa-multzo baten gainean).
- Berdintasuna sustatzeko klausulak txertatutako kontratazio-pleguren %, Udal Departamentu eta irizpide-motaren arabera bananduta (kalkulatuko da urteko hautaketa-multzo baten gainean).
- Berdintasuna sustatzeko klausulak txertatutako diru-laguntzen, konbenioen eta beken oinarrien % Udal Departamentu eta irizpide-motaren arabera bananduta (kalkulatuko da urteko hautaketa-multzo baten gainean).
- Genero-inpaktuaren ebaluazio-txosten bat egina duten udal-arauen kopuru eta portzentajea.
- Berdintasuna sustatzera bideratutako proiektuak sustatzeko edo kofinantzatzeko aurrekontuetan sail bat daukaten departamentuen % (Urteko kopurua eta departamenduko aurrekontuaren gaineko %).
- Aurrekontua genero-ikuspegitik analizatuta daukaten departamenduen kopurua.

1.3. HELBURU ESTRATEGIKOA

Erakunde arteko (udal, foru-aldundi eta erkidego arteko) koordinazioa eta partaidetzazko demokrazia erraztuko dituen lan-eredu batean aurrera egitea, berdintasun-politikak, praktika egokien transferentzia eta kudeaketa publikoaren hobekuntza garatzeko gako gisa.



EMAITZAK - ADIERAZLEAK

- GFAko Berdintasun Teknikarien Sareak lagundutako bilera-kopurua.
- Erakunde arteko gune desberdinetan egindako jardueren kopurua (*motaren eta erakunde sustatzailearen arabera bananduta*).
- Tolosaldeko Udalekin Berdinbidean programaren barruan izandako kontaktu- eta truke-kopurua.
- Genero-ikuspegiaren txertatze-maila Udalak edo udalerriko beste erakunde batzuek dinamizatutako partaidetza-prozesuetan.

2. ARDATZA. JABETZEA ETA PARTAIDETZA

EMAKUMEEN PARTAIDETZA SOZIOPOLITIKORAKO JABETZE ARDATZAK ezartzen du beharrezkoa dela **emakumeen Jabetze pertsonala eta kolektiboa** sustatuko duten baldintzak sortzea, ez xede gisa berez, baizik haiek udalerriko bizitza soziopolitikoan duten partaidetza gero eta indartsuagoa, ikusgaiagoa eta udalerriko erakundeek eta entitate sozial eta ekonomikoek onartuagoa izan dadin. Partaidetza soziopolitikoaren finkatze hori **jabetze sozialaren** mailaz atzeraelikatzen da orduan, eta horrek berekin dakar norbere gain hartzea genero-analisia, eta aldarrikapen feministek ere izan behar lukete berdintasun-politiken oinarri.

Esku hartzeko ardatz honek jarraian deskribatuko ditugun 2 helburu estrategiko ditu:

2.1 HELB. EST.






Kondizioak sortzea udalerriko emakumeak jabetzeko arlo pertsonal, kolektibo, sozial eta politikoan.

2.2 HELB. EST.

Emakumeen bazterkeria-eta mendekotasun-egoeraz kontzientziatzea sustatzen duen balio-aldaketa eragitea, eta kondizioak sortzea, udalerrian emakumeek maila handiagoa lor dezaten partaidetza soziopolitikoan.

2. ARDATZA. JABETZEA ETA PARTAIDETZA

2.1. HELBURU ESTRATEGIKOA. Udalerriko emakumeen jabetze pertsonal, kolektibo, sozial eta politikorako baldintzak sortzea.

HELBURU ESPEZIFIKOAK	NEURRIAK	KRONOGRAMA					
		2015	16	17	18	19	20
2.1.1. Jabetze Eskolaren proiektu estrategikoa finkatzea eta eskualde-mailan emakumeentzako espazio bat sortzea.	2.1.1.1. Jabetze Eskolaren urteko prestakuntza-eskaintza bat diseinatzea eta inplementatzea, emakumeen autoestimua konpontzeko eta garatzeko lagungarri izango dena, haien autonomia pertsonala sustatu nahian.						
	2.1.1.2. Urteko prestakuntza-eskaintza bat diseinatzea eta inplementatzea, kolektibo feministen eta emakumeenen aldarrikapenen, estrategia kolektiboen eta sarean egindako lanaren berri emango duena, bai udalerrian, bai udalerriaz haraindi, emakumen jabetze kolektibo bateko ikuspegitik.						
	2.1.1.3. Partaidetzazko ekintza-ildoak ezartzea, prestakuntza-eskaintzatik harago baldintzak sortuko dituztenak Eskolako ikasleen partaidetza soziala eta politikoa handitzeko udaleko berdintasun-politiken jarraipenean.						
	2.1.1.4. Emakumeentzako espazio fisiko bat sortzea, Tolosan kokatua eta eskualdeari lotutako zein lotu gabeko emakumeei irekia.						
	2.1.1.5. Emakumeen geroko espazioa kudeatzeko eredu bat definitzea, partaidetzazko prozesu baten bidez, espazio horretako partaide izango diren kolektiboen eta banako emakumeen inplikazio-maila ahalik eta handiena lortzeko.						

2.1. HELBURU ESTRATEGIKOA. Udalerriko emakumeen jabetze pertsonal, kolektibo, sozial eta politikorako baldintzak sortzea.

HELBURU ESPEZIFIKOAK	NEURRIAK	KRONOGRAMA					
		2015	16	17	18	19	20
2.1.2. Udalerrian bereizkeria eta eskasia handieneko egoeran dauden emakume-kolektiboentzat jabetze kolektiboa sustatzea.	2.1.2.1. Emakumeei giza baliabideen sarbidea erraztu eta hobetu, hauen erabileran desberdintasunak erakusten dituztenei arreta berezia eskainiz baita bazterketa anitzak bizi dutenei ere.						
	2.1.2.2. Udalerriko emakume gazteentzat jabetze-espazio bat sortzea, haiekin kontzientziazio-lan bat garatzeko eta haiengan eragin handiena duten gaiak heltzeko, lehendik dauden beste proiektu batzuekin koordinatuta (Beldur Barik, baterako hezkuntzako proiektuak, festak, etab.).						
	2.1.2.3. Udalerriko emakume atzeritarrentzako jabetze-espazio bat sortzea (GURETZAKO), eskualdeko beste udalerririk batzuekin koordinatuta.						
	2.1.2.4. Jabetze Eskolako filosofian eta praktikan kultura-aniztasuna finkatzea, espazioan emakume atzeritarren partaidetza areagotu eta genero-lanaren kulturarteko ikuspegi bat sustatuko duten ekintzak diseinatuta.						
	2.1.2.5. Udalerrian federatutako emakume kirolariei laguntzeko proiektu bat garatzea, kontzientzia jabetze pertsonal handiagoa sortuko duena eta, aldi berean, kirolarien jabetze kolektibo baten baldintzak sortzen lagunduko duena klub eta federazioetan.						
	2.1.2.6. Landako emakumeekin lan-prozesu bat garatzea, eskualdeko nekazaritza-sindikatuarekin eta emakume-elkartekin lankidetzan.						
	2.1.2.7. Udalerriko erabaki-espazioetan eta produkzio kultural eta artistikokoetan emakumeen partaidetza areagotzea.						
	2.1.2.8. Udal Musika Eskolarekin proiektu bat garatzea, zuzendaritzari eta irakasleei laguntza eskainita, beren kudeaketan eta prestakuntza-eskaintzan genero-ikuspegia gehitzeko, eta familiak musika-tresna bat aukeratzean eragina duten faktoreekin sentsibilizatuta.						
	2.1.2.9. Sexu-langileen ikusgaitasuna eta partaidetza erraztea, beren estigmatizazio sozialaren eta bazterketa soziopolitikoaren aurka borrokatzen diren kolektiboen alde eginik.						







2. ARDATZA. JABETZEA ETA PARTAIDETZA

2.2 HELBURU ESTRATEGIKOA (jarraip.). Udalerriko emakumeen jabetze pertsonal, kolektibo, sozial eta politikorako baldintzak sortzea.

HELBURU ESPEZIFIKOAK	NEURRIAK	KRONOGRAMA					
		2015	16	17	18	19	20
2.1.3. Emakumeen lidergoa eta partaidetza sozio-politikoaren sendotzea udalerrian.	2.1.3.1. Tolosako emakume hautetsien partaidetza sustatzea GFAk, Emakundek eta beste entitate batzuek bultzatutako ekimenetan, udal-mailan erantzukizun politikoak norbere gain hartzeari lotutako arazo espezifikoak detektatzeko eta neutralizatzeko, eta horien artean laguntza- eta truke-sareak sortzea sustatzeko.						
	2.1.3.2. Udalerriko emakume arduradun politikoak Jabetzetze Eskolak antolatutako prestakuntza- eta eztabaida-espazioetan parte hartzera gonbidatzea.						
	2.1.3.4. Emakumeen partaidetza sozio-politikoaren gaineko prestakuntza-lerro espezifiko bat sortzea Tolosako Jabetze Eskolaren barruan, funtzionatzeko eredu patriarkalekin kritiko den ikuspegi batetik.						
	2.1.3.5. Legealdi bakoitzaren hasieran eta amaieran, emakumeek Udalaren erabaki-organoean eta haren batzorde informatiboetan duten ordezkariak eta partaidetza-maila analizatzea, beharrezkoak izan daitezkeen neurri zuzentzaileak definitzeko.						
HELBURU ESPEZIFIKOAK	NEURRIAK	KRONOGRAMA					
		2015	16	17	18	19	20
2.1.4. Ekimen feministei laguntzeko eta emakumeak jabetzeko udal-baliabideak gehitzea, haien autonomia sustatuta eta erakundeekiko elkarrizketa-maila indartuta.	2.1.4.1. Udaleko Parekidetasun Batzordearen eginkizuna indartzea, horri lotutako edo lotu gabeko emakume gehiago gehituta eta udal-politiken jarraipenean haiei protagonismo handiagoa emanik.						
	2.1.4.2. Prestakuntza eskaintzea herritarren partaidetzari eta partaidetzazko prozesuen dinamizazioari buruz Jabetze Eskolaren esparruan.						
	2.1.4.3. Berdintasun Arloak sortutako lan-espazioetatik sor daitezkeen emakume taldeen autonomia sortzen eta sustatzen laguntzea.						
	2.1.4.4. Udalaren diru-laguntzen lerro bat sortzea, emakumeen jabetzea eta partaidetza soziopolitikoaren sustatzeko.						

2. ARDATZA. JABETZEA ETA PARTAIDETZA

2.2. HELBURU ESTRATEGIKOA. Balio-aldaketa bat sustatzea, generoaren kontzientzia hartzea sustatuko duena eta baldintzak sortuko dituen udalerrian emakumeen partaidetza soziopolitiko handiagoa lortzeko.

HELBURU ESPEZIFIKOAK	NEURRIAK	KRONOGRAMA					
		2015	16	17	18	19	20
2.2.1. Personei sexuaren eta jatorriaren arabera egotzitako genero- eta rol-estereotipoak ezabatzea.	2.2.1.1. Tolosako gazteei zuzendutako euskarazko programazioan genero-ikuspegiaren txertaketa indartzea, arreta berezia jarriz beren jatorrian.						
	2.2.1.2. Gazteriarri zuzendutako udal zerbitzuetako programazioa berrikustea genero-estereotipoak detektatu eta ezabatzeko, berdintasuneko rol, jarrera eta portaera bilatuz.						
	2.2.1.3. Gazteriarri zuzendutako lehiaketetan, Udaletik antolatu edo haren laguntza ekonomikoa dutenetan, ekintza positiboko neurriak sartzea.						
	2.2.1.4. Udalaren kultura-zerbitzuen programazioa berraztertzea, genero-estereotipoak detektatzeko eta ezabatzeko mekanismoak gehitzeko, gizon-emakumeen artean berdintasuneko rolak sustatu nahian.						
	2.2.1.5. Tolosan egiten diren nazioarteko topaketa eta jaialdi nagusien programazioa antolatzen duten entitate pribatuekin lankidetzaren mekanismoak ezartzea (Titirijai Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Jaia, Tolosako Abesbatza Lehiaketa, etab.).						
	2.2.1.6. Tolosaldeko migrazio-arloaren lankidetzarekin udalerrian antolatutako zurrumurruen aurkako tailerretan berdintasun irizpideak gehitzea, eta modu aktiboan laguntzea Gipuzkoako zurrumurruen aurkako Zurrumurrurik Ez sarean, berdintasuneko jarduerak finkatzeko.						
	2.2.1.7. Gizonezko gazte eta helduei zuzendutako gogoetarako espazioak sortzea, eredu maskulino tradizionala zalantzan jartzeko eta berdintasun handiagoko jarrerak zein portaerak garatzeko.						

2.2. HELBURU ESTRATEGIKOA (jarraip.) Balio-aldaketa bat sustatzea, generoaren kontzientzia hartzea sustatuko duena eta baldintzak sortuko dituen udalerrian emakumeen partaidetza soziopolitiko handiagoa lortzeko.

HELBURU ESPEZIFIKOAK	NEURRIAK	KRONOGRAMA					
		2015	16	17	18	19	20
2.2.2. Udalerriko ikastetxeetan eta Udalak bultzatutako programetan baterako hezkuntzaren filosofia eta harreman afektibo-sexualen gaineko kontzientziak finkatzea.	2.2.2.1. Baterako hezkuntzako programa estrategikoari jarraipena ematea eta hori garatzea udalerriko ikastetxeetan.	→					
	2.2.2.2. Jarraipena ematea BERDINSEX Sexologia-zerbitzuari zeina baterako hezkuntzako programatik bultzatu den eta udalerriko biztanle guztiei irekita dagoen.	→					
	2.2.2.3. BERDINSEX Sexologia-zerbitzuaren zabalkunderako jardute-protokolo bat martxan jartzea, udalerriko botikekin elkarlanean.	→					
	2.2.2.4. Udaleko departamenduekin eta beste erakunde garrantziko batzuekin jardute-protokoloak negoziatzea eta abiatzea BERDINSEX Sexologia-zerbitzuaren erabilpena sustatzeko biztanleriaren artean, oro har, eta iristen zailagoak diren kolektiboen artean, bereziki.	→					
	2.2.2.5. Genero-ikuspegiaren integrazioa indartzea Tolosako herritar gazteei zuzendutako euskarazko programazioan, haien jatorriari arreta berezia eskainita.	→					

HELBURU ESPEZIFIKOAK	NEURRIAK	KRONOGRAMA					
		2015	16	17	18	19	20
2.2.3. Emakumeen partaidetza eta ikusgaitasuna handitzea aisialdiko espazioetan eta udalerriko festetan zehar.	2.2.3.1. Festetan esku-hartzeko programa estrategikoari segida ematea, garaturik udalerriko Elkarte gastronomikoetan emakumeen partaidetzari eskainitako lan-lerroa.	→					
	2.2.3.2. Festetan esku-hartzeko programa estrategikoari segida ematea, garaturik udalerriko festa-esparru ezagunenetan (berezki, Iñauterietan eta patroien jaietan, hots, Sanjoanetan) genero-ikuspegia txertatzeari eskainitako lan-lerroa.	→					
	2.2.3.1. Jardute-programa bat garatzea berdintasun-irizpideak txertatzeko udalerriko feria berezietan, esate baterako Txuleta Ferian, Babarrun Astean, Tolosa Goxuan, Eguberrietako Ferian, e.a.	→					

2.1. HELBURU ESTRATEGIKOA

Kondizioak sortzea udalerriko emakumeak jabetzeko arlo pertsonal, kolektibo, sozial eta politikoan.



EMAITZAK - ADIERAZLEAK

- Jabekuntza eskolan izandako partaidetza-mailaren bilakaera (*Erreferentzia 2014ko diagnostikoa*).
- Jabekuntza eskolak heziketarako duen eskaintzaren bilakaera (*Erreferentzia 2014ko diagnostikoa*).
- Udalak edo udalerriko beste erakunde batzuek sustatutako Foro, Batzorde, proiektu, eta abarretan Jabekuntza eskolako ikasleen partaidetza-maila.
- Tolosako Emakumeentzako gune fisiko propio bat sortzea (*BAI / EZ*)
- Jabekuntza-proiektu bereziak garatzea emakume-kolektibo desberdinentzat (Gazteak, Emakume arrotzat, Federatutako emakume kirolariak, Landa eremuko emakumeak): Partaidetza-maila eta lortutako emaitzak.
- Berdintasun Departamenduak EAEan prostituzioan aritzen diren pertsonen kolektiboarekin (Gu Gaitun) lan egiten duten Elkartearen Federazioarekin koordinatutako jarduerak.
- Musika Eskolan matrikulatutako emakumeen eta gizonen %, mailaren eta tresna-motaren arabera. (*Erreferentzia 2014ko diagnostikoa*).
- Tolosako emakume hautetsiek parte hartutako ekintza, formakuntza, foro, eta abarren kopurua, alegia, emakume horiek generoaren arrazoiengatik erantzukizun politikoak bere gain hartzeko dituzten zailtasunak ezabatzea sustatzen duten ekintza eta abarren kopurua.
- Udal arduradun politikari emakumezkoen partaidetza Jabekuntza eskolako prestakuntza- eta eztabaida-guneetan.
- Emakume eta gizonen % udal gobernuko organoetan: Plenoan eta Gobernu Batzordean (*Erreferentzia 2014ko diagnostikoa*).
- Emakume eta gizonen % udal batzorde informatiboetan (*Erreferentzia 2014ko diagnostikoa*).
- Herriko emakumeek (elkartu edo elkartu gabekoak) udaleko Berdintasun Batzordearen barruan duten partaidetzaren bilakaera.
- Tolosako emakumeen elkarte eta/edo taldeen kopurua.
- Emakumeen ahalduntze-proiektuak eta partaidetza sozio-politikoak sustatzeko sortutako diru-laguntzen lerroa (*BAI/ EZ – Emandako ureko zenbatekoa*).

2.2. HELBURU ESTRATEGIKOA

Emakumeen bazterkeria- eta mendekotasun-egoeraz kontzientziatzea sustatzen duen balio-aldaketa eragitea, eta kondizioak sortzea, udalerrian emakumeek maila handiagoa lor dezaten partaidetza sozio-politikoan.



EMAITZAK - ADIERAZLEAK

- Udal euskaltegian matrikulatutako emakumeen eta gizonen %, (Honela bananduta: EHn jaiok edo atzerrian jaiok). Baita ere Mintzalagun programakoak. *(Erreferentzia 2014ko diagnostikoa).*
- Gazteria saileko Tailerretan parte hartutako Emakume eta Gizonen % *(Erreferentzia 2014ko diagnostikoa).*
- TOPAGUNEren jardueratan parte hartutako Emakume eta Gizonen % *(Erreferentzia 2014ko diagnostikoa).*
- Gazteriari zuzendutako lehiaketen barruan txertatutako ekintza positiboaren kopurua (Mota eta datuak sexuaren arabera bananduta). *(Erreferentzia 2014ko diagnostikoa).*
- Kultur Etxeko Helduentzako Tailerretan parte hartutako Emakume eta Gizonen %. *(Erreferentzia 2014ko diagnostikoa).*
- Udalerriko kultur-programazioan eta gazteriarentzako programazioan genero-estereotipoak detektatu eta berdintasunezko rolak sustatzea bilatzen duten mekanismoen txertatze-maila.
- Udalerrian antolatutako Zurrumurruek aurkako Tailerren barruan eta Zurrumurrurik ez Gipuzkoako sarearekin koordinatutako jardueretan garatutako jarduerak non berdintasunezko irizpideak txertatu diren.
- Eredu maskulino tradizionala zalantzan jartzeko, gizon gazte eta helduei zuzenduta antolatutako ekintzen kopurua.
- Koedukazio-proiektua: *(Erreferentzia 2014ko proiektuaren balorazioa).*
 - Irakasleei emandako prestakuntza-saioken kopurua: sexuaren eta prestakuntza-motaren arabera banandutako datuak.
 - Ikastetxeetan garatutako jarduerak: mota eta nesken eta mutilen partaidetzaren %.
 - Berdinsex Sexologia Zerbitzuari egindako kontsultak, sexu, adina eta nazionalitatea/jatorriko herrialdearen arabera bananduta.
 - Beren Berdintasunerako Plan berezkoa egin duten ikastetxeen kopurua.
 - Koedukazio proiektuaren barruan, beste udal departamentuekin egindako ekintza koordinatuen kopurua: mota eta inplikaturako departamendua.

2.2. HELBURU ESTRATEGIKOA

Emakumeen bazterkeria- eta mendekotasun-egoeraz kontzientziaztea sustatzen duen balio-aldaketa eragitea, eta kondizioak sortzea, udalerrian emakumeek maila handiagoa lor dezaten partaidetza sozio-politikoan.



EMAITZAK - ADIERAZLEAK

- Udalerriko festa-ekintza garrantzitsuetan (Iñauteriak eta sanjoanak) emakumeen partaidetzaren aurrerapenaren maila (*Erreferentzia 2014ko Diagnostikoko partaidetzaren datu esanguratsuenen zerrenda*).
- Elkarte Gastronomikoekin izandako partaidetza-prozesuaren aurrerapenaren maila (*Erreferentzia 2014ko diagnostikoa*).
- Eraso sexistarik gabeko festa batzuk sustatzeko egindako jarduerak (*Erreferentzia 2014ko diagnostikoa*).
- Feria bereziak: Emakumeek eta Gizonek lehiaketetan zein Epaimahaiaren osaketan izandako partaidetzaren % (*Erreferentzia 2014ko diagnostikoa*).

ZAINKETEN EKONOMIA ETA BIZITZAREN IRAUNKORTASUN ARDATZAK agerian jarri nahi du egungo antolakuntza sozialak **lanaren banaketa sexualari** eusten diola oraindik, eta bizitzaren iraunkortasunerako beharrezkoak diren rol produktiboak, ugalketakoak eta komunitarioak modu desberdinean esleitzen dizkiela gizonei eta emakumeei. Baina ekonomia feministaren ikuspegitik, lortu nahi dena da familien premia praktikoei irtenbideak bilatzea ez ezik, **herritarren zati oso handi baten lan prekarioaren edo doakoaren bidez bakarrik mantentzen daitekeen sistema ekonomiko baten egituraketa zalantzan jartzeara** ere.




Esku hartzeko ardatz honek jarraian deskribatuko ditugun 2 helburu estrategiko ditu:





3.1 HELB. EST. Balio-aldaketa bat sustatzea, egungo sistema sozioekonomikoa eraldatzeko lagungarria izango dena, bizitzaren iraunkortasunaren zerbitzura egongo dela bermatzeko.

3.2 HELB. EST. Zainketen jardun duin eta bidezko bat bermatzea, bai familia-ingurunean, bai maila profesionalean.

3. ARDATZA. ZAINKETAK ETA BIZITZAREN IRAUNKORTASUNA

3.1. HELBURU ESTRATEGIKOA. Balio-aldaketa bat sustatzea, egungo sistema sozioekonomikoa zalantzan jartzeko lagungarria izango dena, bizitzaren iraunkortasuna bermatzeko behar den lanaren garrantzi ekonomiko eta sozial handiagoa sustatzeko.

HELBURU ESPEZIFIKOAK	NEURRIAK	KRONOGRAMA					
		2015	16	17	18	19	20
3.1.1. Ekonomiaren analisi feministan sakontzea.	3.1.1.1. Egungo sistema sozioekonomikoaren analisi feministari buruzko prestakuntza- eta eztabaida-espazioak eskaintzea Jabetze Eskolan.						
	3.1.1.2. Udalaren azterketa eta proiektu garrantzitsuetan krisiaren genero-inpaktuaren analisi bat sartzea, alderdi koiunturalean zein sistemikoan.						
	3.1.1.3. Prestakuntza- eta eztabaida-espazioak eskaintzea zainketei buruz eta horien errebalorizazio ekonomiko eta sinbolikoari buruz Jabetze Eskolaren esparruan.						

HELBURU ESPEZIFIKOAK	NEURRIAK	KRONOGRAMA					
		2015	16	17	18	19	20
3.1.2. Ekonomia sozial eta solidarioa finkatzea erraztea eta kontsumoaren mendekotasun txikiagoa ahalbidetzen duten ekimenen alde egitea, hori guztia genero-ekitateko irizpideetatik formulatuta.	3.1.2.1. Udalak berdintasun-politikak aplikatzen dituzten ekonomia sozial eta solidarioko enpresak kontratatzearen aldeko balorazio-irizpideak gehitzea.						
	3.1.2.2. Emakumeen ekimen ekonomikoko proiektuetan genero-ikuspegiaren integrazioa sustatzen duten entitate sozialekin elkarlanean jardutea, esperientziak trukatzeko espazioak eskainita eta udalerrian eta/edo eskualdean izan daitezkeen lan-sareetan parte hartuta.						
	3.1.2.3. Bereziki eskasia edo gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsona edo etxeen oinarrizko premiak estaltzen laguntzeko aukera ez-monetarizatuak eskaintzen dituzten ekimen sozial eta herritarren alde egitea, hala nola truke-ekimenen, elikagai-bankuen, baratze komunitarioen, denboraren bankuen, eta abarren alde.						
	3.1.2.4. Laguntza eta aholkularitza eskaintzea –Tolosaldea Garatzen/Eskualdeko Garapen Agentziako Migrazio eta Aniztasuna Arloarekin lankidetzan– emakume migratuei, hemen sortzen duten diruaren banaketa kudeatzeko tresna kontzeptual eta praktikoa gehiago izan ditzaten, Jabetze Eskolaren esparruan tailerren eta aholkularitzaren bidez.						

3.2. HELBURU ESTRATEGIKOA (jarraip.) Zaintzen jardun duin bat sustatzeko baldintzak sortzea, bai familia-ingurunean, bai maila profesionalen.

HELBURU ESPEZIFIKOAK	NEURRIAK	KRONOGRAMA					
		2015	16	17	18	19	20
3.2.3. Zaintzen sektorean lan-baldintza duinak sortzen laguntzea.	3.2.3.1. Zaintzaile profesionalen lan-eskubideekin sentsibilizatzeko kanpaina sozial bat antolatzea, arreta berezia jarrita zaintzaile atzerritarren eskubideetan.						→
	3.2.3.2. Jabetze Eskolan zaintzaile profesionalen zuzendutako prestakuntzak antolatzea, lurraldeko elkarte sindikal eta feministekin lankidetzan.						→
	3.2.3.3. Erakunde publikoetatik kudeatutakoek gain zerbitzu osagarriak eskaintzen dituzten hirugarren sektoreko entitate soziosanitarioei emandako laguntza publikoa mantentzea edo indartzea.						→



3.1. HELBURU ESTRATEGIKOA

Balio-aldaketa bat sustatzea, egungo sistema sozioekonomikoa eraldatzeko lagungarria izango dena, bizitzaren iraunkortasunaren zerbitzura egongo dela bermatzeko.

3.2. HELBURU ESTRATEGIKOA

Zainketen jardun duin eta bidezko bat bermatzea, bai familia-ingurunean, bai maila profesionalen.



EMAITZAK - ADIERAZLEAK

- Gaur egungo sistema sozioekonomikoaren inguruan Berdintasuneko Departamentuak bultzatutako hausnarketa-prozesu, eztabaida eta/edo prestakuntza-saioen kopurua. Partaidetza-datuak.
 - Gaur egungo sistema sozioekonomikoaren inguruko prestakuntza-/sentsibilizazio-prozesuetatik eratorritako proposamen/lan-lerroen kopurua.
 - Zainketa-lanen eta beroien balio ekonomikoaren hazkundearen gainean Berdintasuneko Departamentuak bultzatutako eztabaida eta/edo prestakuntza-saioen kopurua. Partaidetza-datuak.
 - Ekonomia sozial eta berdintasuneko jarduerak sustatzen dituzten eta Udalak bultzatutako ekimenen kopurua.
 - Tolosaldea Garatzeneko Migrazio eta Aniztasun Arloaren laguntzaz, hemen bizi diren migratutako emakumei zuzenduta, hemen sortzen duten diruaren banaketa kudeatzeko antolatutako tailerren kopurua. Partaidetza-datuak.
-
- Mendekotasunari lotutako prestazio ekonomikoa jasoz, familia-ingurunean zaintza-lanetan ari diren pertsonen buruzko distribuzio-datuak sexu, adin eta familiarekin duten loturaren arabera. (*Erreferentzia 2014ko diagnostikoa*).
 - Zaintza-lanen gaineko diagnostiko partaidetzakoa eginda (BAI / EZ).
 - Udal zaintza-lanetako plana eginda (BAI / EZ).
 - Zaintza-lanen ardura partekatua. Partaidetzaren gaineko datuak.
 - Adizkidetze-neurriak aintzat hartu dituzten Udal Departamentuek bultzatutako jardueren % (adingabeen eta/edo mendekotasunen bat duten pertsonen zaintza-lanetarako)
 - Emakumezko zaintzaile profesionalen lan-eskubideekin sentsibilizatzeko jarduerak. Partaidetza-datuak. (Datuak jatorrizko herrialdearen arabera bananduta)
 - Zaintze-lanen esparruko zerbitzu publikoen osagarri diren hirugarren sektoreko erakundeekin gauzatutako ekimenen kopurua: (prestakuntzak, eztabaidak, hausnarketa-prozesuak). Tipologia eta partaidetza-datuak.









INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO INGURUNEA ARDATZAK, batik bat, emakumeen aurka emakume izateagatik eragindako indarkeriaren prebentzioa eta agerpenak hartzen ditu barnean, baina arreta jarri nahi du, baita ere, ezarritako ordena heteropatriarkalaren aurka jaiki nahi duten beste pertsona batzuen egoeran. Bi kasuetan, “moldetik irten” eta herritarren zati handi batentzat mugatzaileak eta diskriminatzaileak diren genero-rol batzuen eraikuntza soziala eraldatu nahi dutenak ikaratu eta zigortu nahi dituen zuzeneko indarkeria sinboliko baten agerpenen aurka borrokatu nahi da.

Esku hartzeko ardatz honek jarraian deskribatuko ditugun 2 helburu estrategiko ditu:






4.1 HELB. EST. Balio-aldaketa sustatzea, indarkeria matxista emakume eta gizonen arteko desberdintasunaren eta ordena heteropatriarkala urratzen duten pertsonen bereizkeriaren adierazpen maximo gisa uler dadin.




4.2 HELB. EST. Indarkeria matxista detektatzeko eta hori jasaten duten pertsoneri arreta emateko mekanismoak hobetzea.

4.1. HELBURU ESTRATEGIKOA. Balio-aldaketa sustatzea, indarkeria matxista emakume eta gizonen arteko desberdintasunaren eta ordena heteropatriarkala urratzen duten pertsonen bereizkeriaren adierazpen maximo gisa uler dadin.



HELBURU ESPEZIFIKOAK	NEURRIAK	KRONOGRAMA					
		2015	16	17	18	19	20
4.1.1. Indarkeria matxistaren kausa eta agerpenen analisia sustatzea.	4.1.1.1. Zenbait korrante feministatik indarkeria matxistaren definizioari, agerpenei, prebentzioari eta arretari buruz egindako eztabaida eta proposamenen berri ematea, zehazki indarkeria bizi duten emakumeen esku-hartzea koordinatzen duen udal protokoloaren markuan.						
	4.1.1.2. Gazteei zuzendutako Beldur Barik, izaera autonomoa duen proiektua, garatu eta sendotzea, gunehori eskainiz eta mikromatxismoak zein emakume gazteei eragiten dieten sexu-erasoak detektatzeko gunehihurtuz.						
	4.1.1.3. Edertasunaren eta harreman afektiboen eredu heteropatriarkalen berrazterketa kritiko bat egitea, bai Jabetze Eskolaren esparruan, bai herritar gazteei zuzendutako baterako hezkuntzako proiektuetan.						
	4.1.1.4. Sexu bereko bikoteen arteko indarkeriaren esparruan jarduerak aztertzea eta definitzea, gai horretan lan egiten ari diren mugimendu feministako eta LGBT-ko entitateekin lankidetzan.						
4.1.2. Tolosako herritarren artean indarkeria matxistaren aurkako sentsibilizazio- eta prebentzio-mekanismoak indartzea.	4.1.2.1. Azaroaren 25a emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna dela bide, sentsibilizazio-kanpainak diseinatzea eta garatzea.						
	4.1.2.2. Herritar gazteei zuzendutako kanpaina bat garatzea, EAEn bultzatutako Beldur Barik! proiektuarekin koordinatuta.						
	4.1.2.3. Jabetze Eskolan autodefentsa feministako ikastaroak eskaintzea.						
	4.1.2.4. Lesbofobiaren, homofobiaren eta transfobiaren aurkako sentsibilizazio-kanpainak diseinatzen eta antolatzen laguntzea, ekainaren 28ko LGBT harrotasunaren nazioarteko egunaren ospakizunetan inplikaturik dauden pertsona eta entitateekin batera.						



4.2. HELBURU ESTRATEGIKOA. Indarkeria matxista detektatzeko eta hori jasaten duten pertsonen arreta emateko mekanismoak hobetzea.

HELBURU ESPEZIFIKOAK	NEURRIAK	KRONOGRAMA					
		2015	16	17	18	19	20
4.2.1. Indarkeria-arloko Udaleko eta udalaz haraindiko zerbitzuen plangintza, jarraipena eta ebaluzioa egiteko mekanismo egonkorak hobetzea.	4.2.1.1. Genero-indarkeria eta sexu-erasoak jasan dituzten emakumeen arreta emateko eta arreta erakunde artean koordinatzeko lehen udal protokoloaren aplikazioa bermatzea, dituen koordinazio-mekanismoak sendotuz.						
	4.2.1.2. Udal protokolo bat lantzea sexu bereko pertsonen arteko indarkeria-kasuetan esku-hartzeko.						
	4.2.1.3. Erakunde arteko jarduketara teknikoko gida bat lantzea indarkeria matxistako kasuetan esku-hartzeko.						
	4.2.1.4. Parte hartzea Gipuzkoako Foru Aldunditik bultzatutako Lurraldeko Berdintasun Teknikarien Sarearen barruan informazioa biltzeko sistemak hobetzeko eta homogeneizatzeko prozesuan.						
	4.2.1.5. Udal-gobernuaren jarduera-protokoloa zabaltzea eraso eta hilketa matxistak daudenean, erakunde arteko mailan esku hartzeko gomendatutako jarraibideak beteta.						

HELBURU ESPEZIFIKOAK	NEURRIAK	KRONOGRAMA					
		2015	16	17	18	19	20
4.2.2. Indarkeria-egoerei aurre egiten dieten emakumeak jabetzeko prozesu individualak eta kolektiboak indartzea.	4.2.2.1. Indarkeria jasaten edo jasan duten emakumeentzat trukerako eta autolaguntzarako espazioak eskaintzea Jabetze Eskolaren esparruan.						
	4.2.2.2. Indarkeria-egoera batetik irteteko prozesuan dauden emakumeak buru dituzten elkarten eta bestelako taldeen alde egitea.						
	4.2.2.3. Emakumeek hiria modu seguruan erabil dezaketela erraztea, "Kaleak Berdintzen" proiektuari jarraipena emanez, Jabetze Eskolan lantalde bat sortuta.						

4.2. HELBURU ESTRATEGIKOA (jarraip.) Indarkeria matxista detektatzeko eta hori jasaten duten pertsonen arreta emateko mekanismoak hobetzea.

HELBURU ESPEZIFIKOAK	NEURRIAK	KRONOGRAMA					
		2015	16	17	18	19	20
4.2.3. Indarkeria-egoerei aurre egiten dieten pertsonen mendeko ahaideen autonomia-maila handitzea.	4.2.3.1. Mendekotasunaren arretarako baliabideak eskuratzea bermatzea, horiek behar dituzten indarkeria-egoerei aurre egiten dieten emakumeen ahaideentzat.						
	4.2.3.2. Indarkeria-egoerei aurre egiten dieten emakumeen seme-alabei zuzendutako indartze-prozesu indibidual eta kolektiboen alde egitea.						

HELBURU ESPEZIFIKOAK	NEURRIAK	KRONOGRAMA					
		2015	16	17	18	19	20
4.2.4. Detekzio- eta jardura-mekanismoak ezartzea lan-esparruan jazarpena badago.	4.2.4.1. Udalean izan daitezkeen jazarpen sexista edo sexualen aurrean jarduteko udal-protokolo bat definitzea.						
	4.2.4.2. Izan daitezkeen mobbing-egoeren aurrean jarduteko udal-protokolo bat definitzea, fenomeno horretan eragina izan dezaketen genero-faktoreetan arreta berezia jarrita.						

4.1. HELBURU ESTRATEGIKOA

Balio-aldaketa sustatzea, indarkeria matxista emakume eta gizonen arteko desberdintasunaren eta ordena heteropatriarkala urratzen duten pertsonen bereizkeriaren adierazpen maximo gisa uler dadin.



EMAITZAK - ADIERAZLEAK

- Indarkeriaren definizioaz, beraren agerpenaz, prebentzioaz eta arretaz korrante feminista diferenteen eta beste erakunde batzuen (GFA,...) eztabaida eta proposamenetan oinarriturik egin diren proposamenen kopurua.
- Berdintasun Departamentuak bultzatutako edo departamentu horretarako langileak parte hartutako sexu bereko bikotekideen arteko indarkeriaren gaineko saio/bilera/eztabaida/ eta abarren kopurua.
- Tolosako "“Protocolo Local de Actuación y Coordinación Interinstitucional para la Mejora en la Atención a Mujeres Afectadas por Violencia de Género y Agresiones Sexuales” izenekoari onartutako proposamen berrietan oinarriturik egin zaizkion aldaketa eta/edo egokitzapenen kopurua.
- Edertasunaren eta harreman afektiboen eredu heteropatriarkalekiko kritika bat sustatzen duten prestakuntza, sentsibilizazioa, erakusketa, eta abarren saio-kopurua. Partaidetza-datuak.
- Indarkeria matxista prebenitzeko eta indarkeria horrek desberdintasunarekin duen harremana ikusgai bihurtzeko egin diren programa zein jarduketak kopurua. Partaidetza-datuak jardueraka, eta hala behar bada, baita erakunde laguntzailearen arabera bananduta ere.
- Indarkeria matxista prebenitzeko jarduketak eta programak (Beldur Barik,...) antolatu eta/edo berrietan parte hartzen duten ikastetxeen kopurua . Partaidetza-datuak jardueraren eta ikastetxearen arabera banatuta.
- Lesbofobia, homofobia eta transfobiaren aurka sentsibilizatzeko egindako programa eta jarduketak kopurua. Partaidetza-datuak jardueraren eta erakunde laguntzailearen arabera banatuta.

4.2. HELBURU ESTRATEGIKOA

Indarkeria matxista detektatzeko eta hori jasaten duten pertsonen arreta emateko mekanismoak hobetzea.



EMAITZAK - ADIERAZLEAK

- Tolosako "Genero-indarkeria eta sexu-erasoak jasan dituzten emakumeei arreta emateko eta arreta erakunde artean koordinatzeko udal protokoloa" izenekoaren gainean egindako zabalkunde-, sentsibilizazio- eta/edo prestakuntza-jarduketak. Partaidetza-datuak jardueraren arabera bananduta.
- Tolosako "Genero-indarkeria eta sexu-erasoak jasan dituzten emakumeei arreta emateko eta arreta erakunde artean koordinatzeko udal protokoloa" izeneko aplikatu den bitartean jasotako gorabehera-kopurua. Partaidetza-datuak jarduketaren arabera eta mota eta jatorriaren bananduta.
- Gorabehera-erregistrotik eratorrita, Protokoloari egindako aldaketa eta/edo hobekuntzen kopurua.
- "Sexu bereko pertsonen arteko indarkeria-kasuetan jarduteko" protokolo bat gauzatu (BAI / EZ).
- Indarkeria matxistako kasuetan esku hartzeko erakunde arteko jardute teknikoko Gida bat gauzatu (BAI / EZ).
- Indarkeria-kontuetako datuak bildu eta homogeneizatzeko prozesuan Gipuzkoako Teknikarien sarearekin elkarlanean egindako hobekuntza-kopurua. Fitxa homogeneo bat definitzea informazioa jasotzeko emakumeen aurkako indarkeria-kontuetan, parte hartzen duten esparru bakoitzeko (soziala, sanitarioa, poliziala eta juridikoa).
- Jabekuntza Eskolaren barruan, indarkeria jasan duten emakumeentzako autolaguntzako guneen trukerako egindako jarduketa-kopurua. Partaidetza-datuak jardueraren arabera bananduta.
- Arreta psikologiko berezia jasotzen duten edo familian esku-hartzeko programetan parte hartzen duten indarkeria jasandako emakumeen seme-alaben kopurua.
- "Kaleak Berdintzen" proiektuan definitutakoetatik egin diren jarduketaren kopurua.
- Indarkeriaren gaineko datuen bilakaera Tolosan: Ertzaintzak irekitako expediente-kopurua; Emakumeen biktimizazioa, nazionalitateka; Tolosako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek artatutako dituzten indarkeria jasotako emakumeen kopurua (adin, egoera zibil, jatorri, lan-egoera eta indarkeria motaren arabera bananduta). (Erreferentzia 2014ko diagnostikoa).
- "Udaletxean jazarpen sexista eta/edo sexualeko kasuen aurrean jarduteko protokolo" bat gauzatzea (BAI / EZ)

III. zatia

KUDEAKETA, JARRAIPEN ETA EBALUAZIO EREDUA



III. PLANAREN JARRAIPEN ETA GARAPEN SISTEMA

Aurrez azpimarratu moduan, plan honen ezaugarri nagusietako bat prozesuaren ideari eman zaion indarra da, funtsezkoa baita, zer egingo den ez ezik, baita baita berau nola aurrera emango den ere. Era berean, filosofia hau planaren jarraipen eta bilakaera sistema osoari aplikatzeko asmoa du, eta ahalik eta modu eraginkor eta integratuenean abiatu behar da dagoeneko egon badauden udal egituretan, esfortzuak bikoiztea eta beharrezkoak ez diren egiturak sortzea ekiditeko.

Horrela, egoki ikusi da sartzea proiektu estrategikoan, hau da, Tolosako Udalaren udal politiketan genero transbertsalitatea sustatzeko eta egikaritzeko 2013 urteaz geroztik inplementatzen ari den proiektu estrategikoan, inplikaturako egituretan burutu beharreko eginkizun eta lanak. Ondoren azaltzen da, hain justu, aipatu egituretan nola banatuko diren ardurak eta nola planteatu den indartzea herriko emakume antolatuen eta ez antolatuen partaidetza.

Berdintasun Zinegotziak eta Saila

Osaera:

Berdintasun Zinegotziak, bi berdintasun teknikari, genero eta berdintasun politiketa 180 orduko gorako formazioa dutenak. Horrez gain, bi teknikariek eta zinegotzigoak genero eta berdintasun politiken arloan etengabeko prestakuntza plan batean parte hartzen dute.

Funtzioak:

- ✓ III. Planaren diseinua, inplementazioa, jarraipena eta ebaluazioa burutzeko ardura duen batzordea da.
- ✓ Proiektuaren baitan, pertsonal politikoarekin solasak burutzeko balioko duen organoa izatea, III. Planaren bilakaera prozesu osoan sorturiko zailtasun eta egindako lorpenak elkarbanatzeko asmoz.
- ✓ Bi urteko plan operatiboen elaborazio eta egiaztatzea gainontzeko sailekin, eta neurrien garapenean parte hartzen duten erakundeekin. Honen baitan daude inplementaziorako kronogramen berrikusketak eta beharrezko ditzeak burutzea, eta baita lanketen koordinazioa, eta neurri bakoitzaren jarraipen fitxen erabilera ere.
- ✓ III. Berdintasun Planaren hainbat jarraipen organoren deialdi eta dinamizazioa, jarraian zehazturik datozen moduan.
- ✓ III. Berdintasun Planaren ebaluazio sistemaren koordinazioa.

Berdintasun Batzordea

Osaera: berdintasuneko zinegotziak; berdintasuneko teknikariek; udal-talde politiko, kolektibo feminista eta udalerriko elkarte bakoitzaren ordezkariak; eta, azkenik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerantz aurrera egiten lan egin nahi duten sentsibilizatutako banako pertsonak.

Sail arteko Batzordea

Udal-sail eta zerbitzu guztietako zuzendaritzek osatutako dute:

Alkatea, edo hark eskuordetzen duen pertsona.
 Idazkaritza Saila, Udal Idazkaria.
 Pertsonal Zerbitzua, Pertsonaleko Teknikaria.
 Kontu-hartzailetza Saila, Udal Kontuhartzailea.
 Hirigintza Saila, Departamentuko arduraduna.
 Gizarte Zerbitzuetako Saila, Departamentuko arduraduna.
 Gazteria Zerbitzua, Gazte Teknikaria.
 Kultura eta Jaien Saila, Kultur Teknikaria.
 Ingurumen Zerbitzua, Ingurumen Teknikaria
 Udaltzaingo Saila, Departamentuko arduraduna.
 Enplegu Saila, Departamentuko arduraduna.
 Kirol Saila, Departamentuko arduraduna.
 Komunikazio Zerbitzua, bertako arduraduna.
 Berdintasun Zerbitzua, arduradun teknikoa.
 Informatika Zerbitzua, IKHako arduraduna, idazkari lanetan arituko dena.

Funtzioak:

- ✓ Bi urteko plan operatiboaren lanketa eta inplementazioari begira, kolektibo feministen, elkarteen eta banakoen ekarpenak biltzea.
- ✓ III. Planaren garapenari buruzko informazio elkartrukatzea
- ✓ III. Berdintasun Planaren ebaluaziorako mekanismoetan parte hartzea

Funtzioak:

- ✓ III. Planean hainbat udal sailtarako zehaztu diren ekimenen bilakaera laguntzea eta sustatzea.
- ✓ Neurrian bilakaeran parte hartzen duten udal sailen artean bi urteko plan operatiboak agiazatzea eta berrestea.
- ✓ Hainbat udal sailtan urteko III. Plan operatiboaren inplementazioaren bilakaera maila balioeztatzea, jarraitzea, eta kontrolatzea.
- ✓ III. Planaren markoaren baitan, Udaleko sailen arteko elkarrizketak burutzeko balioko duen organoa izatea, horietako bakoitzean sorturiko zailtasun eta egindako lorpenak elkarbanatzeko, eta balizko hobekuntza-lerroak identifikatu eta proposatzeko.
- ✓ Sail bakoitzean, III. Planetik eratorritako ekintzak ezartzeko eta sustatzeko ardura duen solaserako pertsonal teknikoaren izendapenak balioeztatzea. Aipaturiko pertsonalari III. Planeko ekimenak aurrera emateko dituen aurrekontu eta formazio baliabideak, dedikaziorako denbora, nahiz erabakitzeko gaitasuna esleitzea.
- ✓ III. Planaren markoaren baitan zehazten diren berdintasun arloko formazio prozesuetan parte hartzea, eta saileko gainontzeko langileei helaraztea bertan jasotako jakintza, esperientzia eta tresnak.
- ✓ III. Berdintasun Planaren ebaluaziorako mekanismoetan parte hartzea.

Solasaz arduratutako pertsonal teknikoa

Aipatzen diren Departamentu eta Zerbitzuei eskatzea pertsona teknikoa izendatzea :

Idazkaritza Saila.
 Pertsonal Zerbitzua
 Kontu-hartzailatza Saila.
 Hirigintza Saila.
 Gizarte Zerbitzuetako Saila.
 Gazteria Zerbitzua.
 Kultura eta Jaien Saila.
 Ingurumen Zerbitzua
 Udaltzaingo Saila.
 Euskara eta Hezkuntza Saila.
 Informatika Zerbitzua.
 Enplegu Saila.
 Kirol Saila.
 Komunikazio Zerbitzua.
 Berdintasun Zerbitzua.

LAIA batzordea

Udal-sailen ordezkariak osatzen dute, udalerrarentzat proiektu estrategikoak eta eraldatzaileak ikuspegi integral eta zeharkako batetik jorratzeko, eta horiek partaidetzazko prozesuen bitartez garatzeko, "hala badagokio".

Funtzioak:

- ✓ Proiektuaren garapen-esparruaren barruan zehazten diren berdintasunean hezteko prozesuetan parte hartzea, eta eskuratutako ezagutzak, esperientziak eta tresnak dagokion saileko gainerako pertsonalari helaraztea.
- ✓ Berdintasun Sailarekin etengabe solasean eta lankidetzan aritzea, sail bakoitzaren proiektuan zehaztutako ekintzak garatu eta jarraitzeko.
- ✓ Berdintasun Sailak eskatutako dokumentazioa ematea (inprimakiak, txostenak, dokumentuak, etab.), dagokion sailean genero-ikuspegia sartzeko beharrezkoak diren zeharkako neurrien abiarazte-maila baloratzeko.
- ✓ Udaleko beste sail batzuetako pertsonal teknikoarekin koordinatzea, proiektuaren esparruan baterako ekintzak beharrezkoak balira.
- ✓ Bi hilez behingo txostenen bidez, proiektuaren esparruan garatutako ekintzen berri ematea; ondoko alderdi hauek adierazita: gauzatutako ekintzak, erabilitako baliabideak, eta ekintzak garatzean antzemandako aurrerapenak oztopoak.
- ✓ Dagokion sailari zuzendutako ekintzaplanean zehazten diren jardunak proposatu, bultzatu eta helaraztea.
- ✓ Dagokion saileko zuzendaritzari, etengabe, bere sailean proiektuaren ezarpenak izandako bilakaeraren berri ematea.

Funtzioak:

- ✓ Udalerriko elkarte, talde eta kolektiboekin batera, partaidetzarako planifikazio estrategikoan III. Berdintasun Plana integra dadila ziurtatzea.
- ✓ LAIAren baitan landutako proiektu estrategikoen eta III. Berdintasun Planaren baitan sustaturiko neurri eta proiektu estrategikoen arteko koordinazio egoki bat ziurtatzea.
- ✓ III. Planaren bilakaerari buruzko informazioa partekatzea.
- ✓ III. Planaren ebaluaziorako mekanismoetan parte hartzea.


BALIABIDE EKONOMIKOAK

Plan honen kudeaketak baliabide ekonomiko espezifikoak izango ditu, bi urtean behin zehaztuko direnak eta, zati batez, kanpoko finantzaketa-iturrietatik etor daitezkeenak. Aurrekontu-sailak bi urteko programa eragilean zati izango dira eta odt formatuan diseinatu diren jarraipen-fitxetan jasoko dira, III. Planaren inplementazioan inplikaturako udal-arlo bakoitzean erabiltzeko eta eguneratzeko aukera izateko (IV. atalean, Eranskinak, dagoen fitxa eredia begiratu). 2015 eta 2016 urteei dagokien bi urteko lehen programa operatiboa, eta honi dagokion aurrekontua, dokumentu honen eranskinetan barneratuko dira ere bai (IV. Eranskinak atalean).

Programetan integraturako jarduketak-kronograman inbertsioko “semaforo-sistema” bat egongo da, hauek adierazteko:



BERDEZ: batik bat Udaleko langile tekniko eta politikoen **lan-orduak** inbertituta gauzatu diren neurriak.



HORIZ: langile tekniko eta/edo politikoen lan-orduez gain, adituen zerbitzuak edo aholkularitza kontratatuzko **funts propioak erabiltzea** beharko duten neurriak.



LARANJAZ: gauzatzeko **diru-laguntza bat edo gehiago lortzea** beharko duten neurriak eta, beraz, horiek inplementatzea ezin bermatu dena bi urteko programak eta Berdintasunerako III. Plana inplementatzeko prozesua diseinatzean.

EBALUAZIO SISTEMA

Jarraipen-tresnez gain, ezinbestekoa da ekintza guztien eta helburuen betetze-maila neurtzea. Horretarako, lehen programa eragilean, berehala diseinatuko dira III. Planaren eraginkortasuna ebaluatzeko behar diren **ebaluazio-adierazleak**, bi mailatan:

a) Tolosako Berdintasunerako **III. Planaren ezarpen-mailaren** berri izatea, hots, **horren betetze-maila** ebaluatzea eta **sortutako lan-prozesuei buruzko balorazioak** biltzea. Jakin nahi da zer mailatan bete den ekintzei, aurrekontuari eta kronogramari buruz planifikaturakoa, eta aldi berean, analizatzea ekintzen garapenak noraino **indartu duten genero-zeharkakotasuna barne-mailan eta herritarren partaidetza (bereziki emakumeena) kanpo-mailan**. Horretarako, **betetze-mailaren eta prozesuaren adierazleak** (kuantitatiboak eta/edo kualitatiboak) diseinatuko dira.

b) **Planaren emaitzak** ebaluatzea, hots, Berdintasunerako III. Planean **planteaturako helburuetan noraino aurreratu den jakitea**, eta zer mailatan sortu diren Tolosako errealitate sozialean eragina izateko baldintzak. Horretarako, **emaitza-adierazleak diseinatuko dira**.



Zehaztu behar da **hemen ez garela mintzatzen ari inpaktu-ebaluazio batez**, neurketa mota horrek lehen mailako iturriak behar dituelako (hala nola etxeko inkestak edo kaleko inkestak), eta inplementazio-kostu handia dute horiek. Hala ere, duen informazio guztia jarriko du Udalak Emakunderen esku, erakunde horrek etorkizunean egingo dituen inpaktu-ebaluazioetan laguntzeko.

IV. zatia: ERANSKINAK



- 1) III. Planaren jarraipen fitxa
- 2) 2015-2016 urteetako aurrekontua

ARDATZA ETA HELBURU ESTRATEGIKOA:		
Helburu zehatza	Zk.	
Neuria	Zki.	
Deskribapena		
Arlo arduradunak		Inbertsio semaforoa eta kostuaren estimua
Inplikaturik dauden beste arlo edo erakunde	Aldizkotasuna eta kronograma	
Jarraipena	Betetze maila	Prezesu-adierazleak
	Erabatekoa/Partziala/Hasi gabea	
Neuriaren garapen txostena		

1. ERANSKINAK: JARRAIPEN FITXAREN EREDUA BI URTEKO PROGRAMA ERAGILEETARAKO



2. ERANSKINA. 2015-2016 urteetako aurrekontua

ARDATZAK	NEURRIAK	KOPURUA
1. GENERO-ZEHARKAKOTASUNA	1.2.5.1. Generoan eta berdintasun-politikan Udaleko berdintasun-arloko langile teknikoek etengabeko prestakuntza-plan bat ezartzea.	1.000€
	1.2.5.2. Urteko Prestakuntza Plan bat prestatzea eta inplementatzea udal-arlo guztietako langile tekniko zein politikoen zatik, prozedura administratiboetan berdintasun printzipioa barneratzeko gaitasuna eskainiz.	12.000€
	1.3.1.3. Partidetza aktiboa EAEn berdintasun-arloan bultzatutako erakunde arteko lan-espazioetan (Berdinsarea, Beldur Barik etab.).	500€
	GUZTIRA	13.500€
2. JABETZA ETA PARTAIDETZA	2.1.1.1. Jabetze Eskolaren urteko prestakuntza-eskaintza bat diseinatzea eta inplementatzea, emakumeen autoestimua konpontzeko eta garatzeko lagungarri izango dena, haien autonomia pertsonala sustatu nahian.	50.000€
	2.1.1.2. Urteko prestakuntza-eskaintza bat diseinatzea eta inplementatzea, kolektibo feministen eta emakumeen aldarrikapenen, estrategia kolektiboen eta sarean egindako lanaren berri emango duena, bai udalerrian, bai udalerriaz haraindi, emakumen jabetze kolektibo bateko ikuspegitik.	-
	2.1.1.3. Partaidetzako ekintza-ildoak ezartzea, prestakuntza-eskaintzatik harago baldintzak sortuko dituztenak Eskolako ikasleen partaidetza soziala eta politikoa handitzeko udaleko berdintasun-politiken jarraipenean.	-
	2.1.3.1. Tolosako emakume hautetsien partaidetza sustatzea GFAk, Emakundek eta beste entitate batzuek bultzatutako ekimenetan, udal-mailan erantzukizun politikoak norbere gain hartzeari lotutako arazo espezifikoak detektatzeko eta neutralizatzeko, eta horien artean laguntza- eta truke-sareak sortzea sustatzeko	-
	2.1.1.4. Emakumeentzako espazio fisiko bat sortzea, Tolosan kokatua eta eskualdeari lotutako zein lotu gabeko emakumeei irekia.	Inbertsioaren kapituluan

2. ERANSKINA. 2015-2016 urteetako aurrekontua

ARDATZAK	NEURRIAK	KOPURUA
2. JABETZA ETA PARTAIDETZA	2.1.2.2. Udalerriko emakume gazteentzat jabetze-espazio bat sortzea, haiekin kontzientziazio-lan bat garatzeko eta haiengan eragin handiena duten gaiei heltzeko, lehendik dauden beste proiektu batzuekin koordinatuta (Beldur Barik, baterako hezkuntzako proiektuak, festak, etab.).	18.000€
	2.1.4.4. Udalaren diru-laguntzen lerro bat sortzea, emakumeen jabetzea eta partaidetza soziopolitikoak sustatzeko.	10.000€
	2.2.2.1. Baterako hezkuntzako programa estrategikoari jarraipena ematea eta hori garatzea udalerriko ikastetxeetan.	-
	2.2.2.2. Jarraipena ematea BERDINSEX Sexologia-zerbitzuari zeina baterako hezkuntzako programatik bultzatu den eta udalerriko biztanle guztiei irekita dagoen.	-
	2.2.2.3. BERDINSEX Sexologia-zerbitzuaren zabalkunderako jardute-protokolo bat martxan jartzea, udalerriko botikekin elkarlanean.	.
	2.2.2.4. Udaleko departamenduekin eta beste erakunde garrantzizko batzuekin jardute-protokoloak negoziatzea eta abiatzea BERDINSEX Sexologia-zerbitzuaren erabilpena sustatzeko biztanleriaren artean, oro har, eta iristen zailagoak diren kolektiboen artean, bereziki.	-
	2.2.2.5. Genero-ikuspegiaren integrazioa indartzea Tolosako herritar gazteei zuzendutako euskarazko programazioan, haien jatorriari arreta berezia eskainita.	66.800€
	2.2.3.1. Festetan esku-hartzeko programa estrategikoari segida ematea, garaturik udalerriko Elkarte gastronomikoetan emakumeen partaidetzari eskainitako lan-lerroa.	-
	2.2.3.2. Festetan esku-hartzeko programa estrategikoari segida ematea, garaturik udalerriko festa-esparru ezagunenetan (berezki, Iñauterietan eta patroiaren jaietan, hots, Sanjoanetan) genero-ikuspegia txertatzeari eskainitako lan-lerroa.	24.000€
		GUZTIRA

2. ERANSKINA. 2015-2016 urteetako aurrekontua

ARDATZAK	NEURRIAK	KOPURUA
3. ZAINKETAK ETA BIZITZAREN IRAUNKORTASUNA	3.1.1.1. Egungo sistema sozioekonomikoaren analisi feministari buruzko prestakuntza- eta eztabaida-espazioak eskaintzea Jabetze Eskolan.	Jabetza Eskolaren aurrekontuaren barne
	3.1.1.3. Prestakuntza- eta eztabaida-espazioak eskaintzea zainketei buruz eta horien errealizazio ekonomiko eta sinbolikoari buruz Jabetze Eskolaren esparruan.	Jabetza Eskolaren aurrekontuaren barne
	3.2.2.1. Rol tradizionalak apurtu eta zainketen eta etxeko lanen esparruan erantzunkidetasuna sustatzen duten ikastaroak diseinatzea.	Jabetza Eskolaren aurrekontuaren barne
4. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO INGURUNEA	4.1.1.2. Gazteei zuzendutako Beldur Barik, izaera autonomoa duen proiektua, garatu eta sendotzea, gunehori eskainiz eta mikromatxismoak zein emakume gazteei eragiten dieten sexu-erasoak detektatzeko gunehihurtuz.	12.000€
	4.1.1.3. Edertasunaren eta harreman afektiboen eredu heteropatriarkalen berrazterketa kritiko bat egitea, bai Jabetze Eskolaren esparruan, bai herritar gazteei zuzendutako baterako hezkuntzako proiektuetan.	Jabetza Eskolaren aurrekontuaren barne
	4.1.2.1. Azaroaren 25a emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna dela bide, sentsibilizazio-kanpainak diseinatzea eta garatzea.	Beldur Barik programa aurrekontuaren barne
	4.1.2.2. Herritar gazteei zuzendutako kanpaina bat garatzea, EAEn bultzatutako Beldur Barik! proiektuarekin koordinatuta.	Beldur Barik programa aurrekontuaren barne
	4.1.2.3. Jabetze Eskolan autodefentsa feministako ikastaroak eskaintzea.	Jabetza Eskolaren aurrekontuaren barne
	4.1.2.4. Lesbofobiaren, homofobiaren eta transfobiaren aurkako sentsibilizazio-kanpainak diseinatzen eta antolatzen laguntzea, ekainaren 28ko LGBT harrotasunaren nazioarteko egunaren ospakizunetan inplikaturik dauden pertsona eta entitateekin batera.	1.500€
	GUZTIRA	13.500€

2. ERANSKINA. 2015-2016 urteetako aurrekontua

TEKNIKARIAK		KOPURUA
BERDINTASUN SAILA	Berdintasun teknikariak: Bi langile, bat jornada osoz eta bestea jornada erdiz (2015-2016)	93.771,44€
	Berdintasun teknikariak: Gizarte segurantzak (2015-2016)	29.644,32€
	GUZTIRA	123.415,76€

2015-2016 URTEETAKO AURREKONTU OROKORRA	KOPURUA
ARDATZAK	195.800,00€
TEKNIKARIAK	123.415,76€
GUZTIRA	319.215,76€